

Aretxagazeta

Internet: www.saretxo.es/aretxagazeta
e-mail: aretxagazeta@saretxo.es

Aretxabaleta • 1999ko maiatzak 27 • 168. zka.

Alkategaiak ezagutzen

Bost ordezkari udaletxera bidean

Euskal Eskola Publikoa Eraikitzen

Zure etorkizuna eraikitzen



Batxilergo guztiak

- Natura eta Osasun-Zientzien Batxilergoa
- Giza eta Gizarte-Zientzien Batxilergoa
- Teknologia Batxilergoa

Bide irekiak

- Ikasle bakoitzari egokitutako bideak

Hizkuntzak

Eskaintza zabala:

- Ingelesa
- Alemaniera
- Frantsesa
- Itallera

Modalitate eta Aukerako ikasgaietan oso eskaintza zabala

- Elektroteknia
- Ordenagailu bidezko marrazketa eta diseinua
- Mekanika
- Ekonomia eta enpresa antolaketak
- Jarduera fisikoa, aisialdia eta osasuna
- Laborategi teknikak
- Psikologia
- Antropologia

Erdi Mailako Zikloak

- Ibilgailuen elektromekanika
- Erizaintzako zaintza osagarriak
- Soldadura eta galdaragintza
- Kontsumorako ekipo elektronikoak

Goi Mailako Heziketa Zikloak

- Galdaketa eta pulbimetalurgiaren bidezko produkzioa

Aurre-inskripzioa

Ekainaren 1etik 9ra

Matrikula

Uztailaren 1etik 9ra



BERRI GEHIAGORAKO



ARRASATE: 943 79 83 00 / 943 79 44 47
ARETXABAETA: 943 79 79 00 / 943 79 79 43

 **arrasate
aretxabaeta**
INSTITUTUA




Zer eskatuko zenioke udalbatza berriari? Udalak herriaren alde zer bait egiten du?

Juan Jose Berasaluze
(Langilea)

Lehen futbolzelaia zegoen tokian, Ibarra zaharrean, parke bat egitea eskatuko nuke.

Horrez gain, udalak herriaren alde egiten duela uste dut, orain egiten ari diren obrak ikustea besterik ez dago.



Francisca Sasiain
(Jubilatua)

Kaleak ahalik eta azkarren konpondu eta estali gabeko igerilekuak eraiki ditzala.


Udalak herriaren alde nahikoa egiten du; orain ere ari dira ibaira doan zikina kentzen, nahiz eta motel dabilzan lanak.



Iñaki Arana
(Langilea)

Jende askok dioena errepikatuz, igerilekuak eraikitzea eskatuko nioke udalari, igerileku konpletoa.

Hala ere, udalek gaur egun herriaren alde asko egiten dute, ez dira orain hamar urtekoak bezalakoak.



Miren Axpe
(Langilea)

Ditxosozko obra hauek behingoz amaitzea. Ezin gara ia mugitu ere egin eta.

Udalak herriaren alde egiten duenari dagokionez, zer egiten duen ez dakit, nahiz eta zer bait egiten duela imajinatzen dudana.



e s k u t i t z a



Gaztetxe irekia

Eskutitz honen bitartez, datorren hilak 29an, larunbata, arratsaldeko 6etan Gaztetxean burutuko den Asanbladara gonbidatzen zaituztegu.

Gure helburuak hauek dira:

- Herriko kultura bultzatu, non pertsona bakoitzak nahi duen ekintza kulturala proposatu zein burutu dezakeen.
- Euskal gazteriaren kezkei erantzun eta ahal den heinean behar diren neurriak hartu eta guzti honi aurre egin.

Azken finean, gure nahia gaztetxea herritarrontzat leku ireki eta zabala bilakatzea da. Horregatik, proiektu honetan denon partehartzea garrantzitsua deritzogu.

Besterik gabe, besarkada bero bateaz agurtzen gara.

Aretxabaletako Gazte Asanblada

Oharra: Jadanik kamarero berriak aukeratu ditugu eta aurrerantzean erabakiko diren gaietan herriko koadrila ezberdin bakoitzeko bozeramale

bat Gaztetxean izatea eskertuko genuke.

Kepa Urrea Euskal Herriratzearen aldeko plataforma

Kepa Urrea atxabaltar presoak oraindik Valdemoron jarraitzen du. Hori dela eta, egoera hau salatu eta honen Euskal Herriratzea eskatzeko, datorren ekainaren 3an protestaldi ekitaldia egingo da Bilbon, "Juez de vigilancia penitenciaria"ren egoitza aurrean. Bertara joateko, datorren ekainaren 3an goizeko 9etan bus geltokian elkartuko gara.

Joan nahi izanez gero, izen ematea Gurea, Urbaltz eta Arlutz tabernetan egin daiteke datorren astebukaeratik aurrera.

Egoera honi irtenbidea ematea guztion ardura denez, gurekin Bilbora etortzera animatzen zaituztegu.


Aretxabaletako Euskal Presoak Euskal Herrira plataforma



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz lagundutako
aldizkaria



Aretxabaletako
Udalak diruz
lagundutako
aldizkaria

Aretxagazeta aldizkaria. **Argitaratzailea:** Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte. Durana 11, 151 postakutxatila Aretxabaleta. Tfnoa: 943-79 86 21 Faxa: 943 77 18 54. **Erredakzio-kontseilua:** Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe, Begoña Arenaza, Arrate Arkauz, Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta, Arantza Antxia. **Erredakzio arduraduna eta publikitate arduraduna:** Mirari Altube eta Iratxe Bengoa **Kolaboratzaileak:** Mikel Arrojabo, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Amaia Berezibar, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskalgazia. **Banatzailea:** Jeanette Bragado. **Inprimategia:** Eguzkigraf, Koop. Elk. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Eguraldiak lagundu ez arren giro polita

Euskararen egunean eta Ojala Zelaiko erromerian



Eguraldi benetan eska-
xa egin zuen zapatuan.
Goizean egin ziren ekin-
tzeak euren kolorea galdu
zuten. Hala eta guztiz,
jende ugari hurbildu zen
eskulan, taila eta Hiruatxen
erakusketak ikustera, baita
gazta eta sagardoa dasta-
tzera ere. Plazako arkupe-
tan egin zen baba janean
200 bat lagun elkartu ziren
eta umore onaz gain, kaja
jokuak emozioa ere
gaineratu zion dantzak na-
gusi izan ziren arratsal-
deari.



Hurrengo egunean, berriz, jendea beldurrik gabe igo
zen Ojala Zelaira. Hotz egin arren umeak gustora ibili
ziren jolas ezberdinak probatu eta Gorritiren animalien
atzetik. Bertan bazkaltzera ez zen jende gehiegi anima-
tu eta arratsaldeko ekintzak Iturrigorri frontoian egin
behar izan ziren ekaitzaren ondorioz.



EMUN Koop.ren aurkezpena



Pasa den maiatzaren 19an Emunek, lana euskaldun-
tzeko kooperatibak, aurkezpen ekitaldia egin zuen
Arrasaten.

Emun, orain bi urte, Mondragon Unibertsitateko Ira-
kasle Eskolak sortu zuen, lan-eremua euskalduntzen
joateko zerbitzuak eskaintzeko asmoz. Emunek batez
ere lan eremuan dihardu eta bi arlotan lan egiten du,
hizkuntza normalizazioan (enpresetan euskararen era-
bilpena areagotzeko plangintzak), eta, euskaraz, ka-
litatezko zerbitzu osagarriak eskaintzen (aholkularitza
juridikoa eta aholkularitza ekonomiko eta auditoretza).

14 puntu onartu ziren ez-ohiko osoko bilkuran

Udalak etxebizitzak egiteko 12.000 m² tik gora erostea erabaki zuen

Pasa den astelehenean, hilak 17, egindako ez-ohiko osoko bilkuran 14 puntu onartu ziren.

1. Udaletxeko langileak funtzionari bihurtzeko oinarriak. Honen arabera 17 langile funtzionari izatera pasatuko dira.

2. Araba Ibilbidea 25eko etxebizitzaren aurri espedientea. Aurri ekonomiko eta urbanistikoa onartu da. Orain jabeek 15 eguneko epea dute etxea botatzeko eta bestela udala egingo da horren kargu.

3. Ur hondakinen saneamenduari buruzko udal ordenantzaren hasierako onarpena. Auzoetan uraren saneamendua egin nahi da, orain arteko ejekuzio eta mantenua arautuz. 30 eguneko jendeaurreko epea egongo da ordenantza honi alegazioak aurkezteko.

4. Dirulaguntza Utilki SAL enpresari. 5.900.000 pta. ko dirulaguntza ematea onartu zen.

5. Arau subsidiarioen behin behineko onarpena. 2 hilabeteko erakusketa egon ostean, alegazio bakarra aurkeztu zen. Honi ezetza eman ostean, orain Foru Aldundiari tokatuko zaio oniritzia ematea.

6. Liburuzain laguntzaile postua Joseba Lopez de Armentiarri ematea onartu zen.

7. Biztanleen errolda jakinarazi zen. 1998ko urtarrilean 5.976 biztanle zituen Aretxabaletak, 1999ko urtarrilean, berriz, 6.142. Iaz 39 jaiotza eta 35 heriotza izan ziren.

8. Hauteskundeetarako zozketa. Hauteskunde egunean botu mahaian egon beharko dutenen izenak atera ziren.

9. Lurren erosketa. Udaletxeak kali-

fikazio industrialak duten lurra erostea erabaki zuen, ondoren etxebizitzak egiteko. Batetik 11.964 m² erosi ditu eta bestetik 386 m² ko bi lur sail. Puntu honetan, HBko Luis Errastik bere haserrea agertarazi zuen, orain bi aste Aretxagazetan Miguel Angel Delgadok ateratako iritzia artikulua inguruan. Luisen esanetan, Udala etxebizitzak egiteko lurra erosten ari da eta ikaragarritzko kontraesana dago Miguel Angelek esandakoarekin.

10. Edaritegiei buruzko udal ordenantzaren aldaketa. Lehengo ordenantzak tabernen arteko distantzia bakarrik arautzen zuen orain ordutegia ere arautuko du.

11. 22-A zonaldeko lurren lagapena. Bama promotoreak, Belorrieta inguruko urbanizatutako lurra eman dizkio udalari.

12. Gipuzkoako plaza hiriztatzeko lanen izendapena. Eibarko Grey-

hound enpresari eman zaio lanak burutzeko baimena. Laster hasiko dira bertako obrak.

13. 25 zonaldeko hitzarmena. "Villa Genoveva" kokatuta dagoen zonaldean, hirigintza garapenerako "25 promozioa SA" rekin (Amaral-Lekber) hitzarmena sinatzea onartu zen. Bertan 32 etxebizitza egingo dira eta hori aprobetxatuaz Araba Ibilbidea eta Baintexea lotuko dituen bidea egin nahi da. Horretarako, aprobetxamenduen %10 erabiliko da eta falta den diruaz Udala egingo da kargu.

14. Eskoriatza eta Aretxabaletako Udalen arteko hitzarmena. Zenbait auzotara ura eramateko azpiegitura sortu eta mantentzeko laguntzak emango dira. Aretxabaletan Arkarazo auzoa eta Boliña hartuko ditu hitzarmen honek. Momentuz Aretxabaleta %25az egingo da kargu eta Eskoriatza %75az.



"Villa Genoveva" inguruan 32 etxebizitza egingo dira



LASAGABASTER-en

AUKERARIK ONENA

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



“Eraikikasi” proiektua Elkarriren eskutik

Maiatzaren 19an, Elkarriko Tailer nazionaleko Maixus Rekalde izan zen herrian, Elkarri eskuartearen darabilen azken proiektua aurkezteko, “eraikikasi” proiektua hain zuzen. Hiru ataletan banatu zuen hitzaldia: Euskal Herriko une honetako egoera elkarriren ikuspuntutik, hemendik aurrera gertatuko dena eta elkarriren erronkak.

Jende asko inguratu ez bazen ere, giro polita sortu zen bertakoen artean eta Maixusen hitzaldiaz gain, hainbat galdera eta ekarpen izan ziren, gehienak komunikabideetako informazio manipulazioaz kezkatutik.

Herriko hainbat talde politikoren aurkezpena

Pasa den larunbatean, hilak 22, Aretxabaletako EH taldeak eta EAJ-EA koalizioak euren aurkezpena egin zuten datorren ekaineko udal hauteskunderi begira.

Euskal Herritarrok taldea udaletxeko ganbaran bildu zen. Anjel Bergaretxe alkategaiak adierazi zuenez, beste batzuen artean bi helburu garrantzitsu dituzte: bata, herritarrok, beldurra galdu eta udaletxera hurbildu araztea eta bestea, udala herritarrengana inguratzea, beti haien iritzia kontuan hartuz.

Udal hauteskundeok irabazteko itxaropen osoa izateaz gain, aro berri honen aurrean lanean hasteko izugarriko gogoia agertarazi zuten.



EAJ-EA koalizioak, berriz, batzokian egin zuen aurkezpena. Bertan, ilusioz betetako garai berri baten aurrean gaudela eta talde abertzaleen arteko akordioan oinarritutako Euskal Herria eta Aretxabaleta eraiki behar direla adierazi zuten. Karmelo Azkoitia alkategaiaren esanetan, momentu honetan udalak pisu handia du herrian eta orain arteko mailari eutsi nahi zaio.

Udalean esperientzia handia duen jendearen alde egin dute apostu koalizioek, horrela zerrendako lehenengo zortzi lagunetik sei, aurretik udaletxean egondakoak dira.





Zubia
Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 943 79 16 00 ARETXABALETA
Biteri 1 • ☎ 943 79 66 53 ARRASATE



**Lurrindegia
Opari-denda**

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

ARETXABALETA

ITURGINTZA

Durana, 16-Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA

Erantzun zabala greba deialdiari

Pasa den ostiralerako, hilak 21, sindikatuek, 35 orduko lan astea eskatzeko, Euskal Herri osoan grebarako egindako deialdiak erantzun zabala izan zuen Aretxabaletan.

Lantegi eta enpresa gehienak itxita egon ziren, autonomo asko, berriz, lanean ikusi ahal izan ziren. Zabalik egon ziren bakarrenetakoa Eroski eta udaletxea izan ziren. Dendari txikien aldetik jarraipen ezberdina izan zen, batzuek ez zuten ireki, beste batzuek lehenengo

orduan bakarrik eta gutxi batzuek egun osoan. Banku eta Kutxa batzuek zabalik egon ziren beste batzuek, berriz, itxita. Osasun Zentruan langile batzuek greba egin zuten eta beste batzuek ez. Beraz, ateak zabalik egon ziren baina ez zen normaltasunez lan egin. Autobus zerbitzurik ere ez zen egon egun osoan.

Udaletxeko langileak piketeen beldur baziren ere, ez zen inolako arazorik egon, ez udaletxean ezta beste inon ere.

Mekanizazio kurtsoa amaitu da Institutuan

Hilaren 26an egin zen "Lan tresnen mekanizazio eta fabrikazioa" kurtsoaren itxiera ekitaldia.

Kurtso honetan 14 ikasle aritu dira eta antolatzaileak Arrasate-Aretxabaleta Institutua izan zen Aretxabaleta, Eskoriatza eta Arra-

sateko Udalen laguntzarekin. Ikastaroaren helburua langabezia dauden gazteei lan tresnen mekanizazio eta fabrikazioa irakastea izan da, horrela lana aurkitzeko bidea erraztuz. Ekitaldi amaieran, ikasleei diplomak banatu zitzaizkien.

Lanbide hastapeneko ikastaroak

Eskolan jarraitu nahi ez edo utzi duten gazteei hainbat lanbidetan aritzeko eta prestatzeko aukera eskaintzen die. Heziketa osoa da eta gazteei euren autoestima indartuz gizarteratzeko eta lanerako prestakuntza ematen zaie.

Ikastaro horietan izena emateko Deba Garaiko udalerriren batean erroldatua egon eta 16-20 urte bitarteko langabetua izan behar da. 1999ko irailean hasiko dira eta 2000ko uztaila arte iraungo dute. Informazio gehiago eta izenematea udaletxetan edo Zaldibar ikastetxean (Arrasateko Nafarroa etorbidea, 19. Tfnoa: 943 79 28 90) egin daiteke, ekainaren 7tik 18ra. Ikasleen prestakuntzaren osagarri izan zitekeelakoan Deba Garaiko Mankomunitateak lankidetzak akordioa sinatu zuen Alecopekin. Hori dela eta ikasleek ikastorduz kanpo ordu batzuk lana egiteko aukera izango dute.



Goi-mailako Lanbide Heziketako B. Institutua
Miguel ALTUNA

Instituto E. de Formación Profesional Superior



1999/2000 ikasturterako HEZKUNTZA-ESKAITZA

GOI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK

- Administrazio eta finantzak
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Proiektu mekanikoen garapena

Aurrematrikula epea ZABALIK:

Ekainaren 1etik 9ra.

Ohiko matrikula epea:

Uztailaren 1etik 9ra.

Berri gehiago nahi baduzu deitu gure telefonoaren eta gure eskaintzari buruzko azalpenak emango dizkizugu. Helbidea: Ibargarai, 1. Tf.: 943 76 24 91 / 943 76 38 40

ERDI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK

- Mekanizazioa
- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak

➤ Norberaren gaitasun eta nahien arabera egokitutako ibilbideak

➤ Behar diren baliabideekin

➤ Bide eta ate guztiak zabaltzen dituen ikasketak

➤ Eskola publikoa: integratzailea eta anitza

Udal hauteskundeak: 5 alkategai, postu bakarra

Ekainaren 13a gainean dugu eta ostiral honetatik aurrera, politikoak, ideiak argitzen edo nahasten hasiko zaizkigu. Hamabost egun izango dituzte nahi duten guztia esanez, alkate postua lortzeko. Aurten, gainera, herrikuntza ugari izango dira, batetik

EAJ-EA koalizioa eta bestetik Partidu Popularra-
ren aurkezpena. Beraz, bost alkategai postu baka-
rreko. Emaitzei itxoin beharko diegu nor izango
den jakiteko, momentuz bakoitzak zer dioen en-
tzungo dugu.



Karmelo Azkoitia Galdos

- 53 urte
- Peritajea ikasi zuen eta Aretxabaleta, Bergara eta Oñatiko industrialdeetako gerentea da.
- 2 legealditan zinegotzi izan-dakoa, 79tik 87ra.

Jose Mari Armentia Makazaga

- 35 urte
- Ekonomia ikasketak egin iz-tuen eta Gipuzkoako Foru Al-dundian funtzio publikoko zu-zendaria da.
- 91-95 legealdian zinegotzia izan zen.

- Batera aurkeztuta, 8 zinegotzitik gora lortzea espero dute.

• Euskal Herriko egoera politiko berriak, Aretxabaletako Udalak hobeto funtziona dezan balioko du?

Azkenengo 20 urtetan izan dugun egoerarik politena eta itxaropentsuena da. Bai alde bateko, bai besteko abertzaleak batera gabilta eta honek Aretxabaletan ere bere fruituak emango ditu. Aurreko legealdian ere talde guztiek parte hartu duten gobernua lortu dugu eta bide honi jarraitu behar diogu.

• Legealdi honetan EAJ-EA batera zoazte. Zein da helburua?

Pasa den legealdian koalizioa egin beharrean kolaborazioa egin zen eta orain koalizio bitartez indarrak sendotu nahi ditugu. Zerrenda bakarraz emaitza hobekak lortzea espero dugu. Aurten botoa gehiago sakanatuko da eta guk gehiago orokorra lortu nahi dugu.

• Zer eskeintzen diozue Aretxabaletari hurrengo lau urteetarako?

Erronka

- Bizi dugun egoera politikoan, erronka bat dugu. Erronka hori Euskadi da, eta geure asmoa, Aretxabaleta, bere txikitasunean, erronka horri begira jartzea da; azken batean, txikia denak erronka honen alde egiten ez badu, handiak berak ezingo du eta.

Administrazioa

- Administrazioa herritarrengana helaraztea dugu helburu, beraiengana hurbildu eta esfortzu berezia egingo dugu honetan. Hau da, herritarrek edozein arazo dutela ere, nora jo badutela jakin dezaten nahi dugu. Udala gero arazo horri irtenbidea aurkitzen saiatuko da.

Tolerantzia

- Geure seme-alabak Aretxabaletatik atera behar badira, nahi dutelako izan dadila, eta ez beraien gurasoen etxean tokirik ez dagoelako, hau da, beraien gurasoen herrian tolerantziarik ez dutelako aurkitu. Aretxabaleta ez dago bitan banatuta, bertako biztanle guztiok osatzen dugu herria, eta ez dago inor sobran.

Europa

- Europarako bidean goaz. Europara joateko, hala ere, geure tresnak eta datozen belaunaldiak prestatu egin behar ditugu. Hezkuntzan, teknologia arloari dagokionez, maila bat lortu behar dute gazteek eta horrez gain, gure bailara eje garrantzitsu bat dela ere irakatsi behar zaie. Batetik, geopolitikoki leku estratejiko batean kokatuta gaudelako European eta bestetik bailara honek Gipuzkoako ekonomian pisu handia duelako. Honi guztiari zuku ateratzen irakatsi behar zaie belaunaldi berriei.



ERNE GAZTE, HEZIBIDEREN

ALDEKO APOSTUA

ERRENTA SEGURUA



HEZIBIDE
Hezkuntza Taldea

ALMEN ESKUALDEKO IKASTOLA ETA

ARRASATEKO IKASTOLA

SAN FRANTZIZKO XABIER - SAN VIATOR

bi aukera anitz bezain osagarri
honako ikasketak egiteko

2 UNIBERTSITATE IKASKETAK

UNIBERTSITATEKO IKASKETA
GUZTIETARAKO, EGUN DAUDEN
UNIBERTSITATE GUZTIETAN, ETA GOI
MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO
SARBIDEA.

AURREMATRIKULAZIOA: EKAINAREN 1 ETIK 9 RA

MATRIKULAZIOA: UZTAILAREN 1 ETIK 9 RA

1 BATXILERGO AUKERA GUZTIAK

- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
- TEKNOLOGIKOA, ESKOLA POLITEKNIKOAK
ikastoloi transferitutakoa eta bere aholkularitzapean
garatutakoa. Lanbide Heziketako tailerreko praktikak
injinerutzarako konbalidatuta.

3 ETA LANBIDE HEZIKETA

- GORPUTZ ETA KIROL EKINTZAK (ALMEN ikastola)
- IRUDI PERTSONALAREN AHOALKULARITZA (ALMEN ikastola)
- ANALISI ETA KONTROL KIMIKOA (ALMEN ikastola)
- INGURUGIRO KIMIKA (ARRASATEko ikastola -San Viator)
- INGURUGIRO OSASUNA (ARRASATEko ikastola -San Viator)
- OSASUNGINTZAKO DOKUMENTAZIOA (ARRASATEko ikastola -San Viator)
- ERIZAINZAKO LAGUNTZA OSAGARRIAK (ARRASATEko ikastola -San Viator)
- ILEAPAINKETA (ARRASATEko ikastola -San Viator)

"Ate Ireki"
eguna

Bilera
informatiboa

Ordua

Tokia

Kontakturako
pertsonak



ALMEN
IKASTOLA

99 / 5 / 19
Almen 16:30

99 / 5 / 19

18:00

Almen

Josebe
Murumendaraz

943 71 49 07

ARRASATEKO
IKASTOLA

99 / 5 / 20
San Viator 16:30

99 / 5 / 11

18:00

San F. Xabier

Margari
Gorrotxategi

943 79 64 79

99 / 5 / 20

18:00

San Viator

Idoia Urrutia

943 71 24 90




ALMEN
IKASTOLA



SAN VIATOR
IKASTOLA



SAN FRANTZIZKO XABIER
IKASTOLA



Anjel Bergaretxe Agirregabiria

- 37 urte
- Injieneri teknikoa da eta Coprecin ari da lanean.
- Alkategairako bigarren aldiz aurkeztu da. Aurreko legealdian alkate izateko botuak lortu arren, beste taldeek ez zioten utzi kargua hartzen.
- 5 zinegotzi ziurtatuta dituztela dio; bere esperantza hauteskundeak irabaztea da.

• Euskal Herriko egoera politiko berriak, Aretxabaletako Udalak hobeto funtziona dezan balioko du?

Balio beharko luke. Orain arteko ohitura batzuk ahaztuta egongo direla uste dugu eta sasoi berri honi dagokion jarrera hartzea espero dugu. Udala bera, egoera berri honen bultzatzailea izan behar da, nazio mailan egiten diren ekintzak herrian bertan sustraitu eta hemendik bultzatzeko.

• Orain arte HB izan zarete, orain EH. Emaizetan aldaketarik nabaritzea espero duzue?

Aldaketa bakarra ez dago izenean, egoera berri bati egokitzean baizik. Sektore berrietara zabaldu eta hauek inplikatzeko nahi dugu, lan horretan ibili gara, eta emaitzetan ere nabaritu dela uste dugu. Urrian, filosofia berri honekin aurkeztu ginen eta lortutako botu kopuruan asko nabaritu zen.

• Zer eskeintzen diozue Aretxabaletari hurrengo lau urteetarako?

Orokorrean, batzorde irekiak izatea eta jendearen parte hartzea bultzatzea eta ziurtatzea.

Euskara

- Udaletxe barnean: barne funtzionamendua euskaraz egin ahal izatea lortu arte erabilera plana garatzen jarraitzea da gure asmoa.

- Herri mailan: euskara batzordea, euskararen erabilera hedatu eta indartzeko herrian diren tresnen topagune bilakatu behar da, hauei (euskaltegia, Loramendi, Aretxagazeta, Telebista) etekin handiena atera ahal izateko.

Kirola eta Kultura

- Kultur eta kirol baliabideen egokitzapena era serioan aztertu behar da, zein erabilera ematen zaien jakin eta hortara egokitu.

Ongizatea

- Gizarte bazterketa gainditzea da gure helburua, laguntza ekonomikoek gain beste mekanismo batzuk artikulatuz. Arreta berezia merezi dute: familia eta haurtzaroak, hirugarren adinak eta prebentzioko programek.

Ingurugiroa

- Autopista eta parke eolikoa kanpotik ezarrita dagoenez, gure eskuetan geratzen diren arazoak zaindu beharrean gaude: Urkuluko autoen arazoa konpondu, pasealeku gehiago egokitu, birziklapena bultzatu...

Hirigintza eta etxebizitza

- Arau subsidiarioei oniritzia eman.
- Etxebizitzaren politikari dagokionez, zenbait gauza aldatu eta bultzatu beharra ikusten dugu: hutsik dauden etxebizitzaren arazoa konpondu, Udalak etxebizitzak egiteko lurra erosi, babes ofizialeko etxebizitzak egitera bultzatu...

Gazteria

- EUDIMAn barneratu udaletxe intsumitu bat lortuz.
- Gazteei zuzendutako informazio bulegoa zabaldu.
- Gaztetzaren arazoa konpondu.

ERREKABARREN MERKATAL ZENTRUA

• JUANTXO URDAITEGIA	943 79 75 42
• MARI KARMEN OINETAKO DENDA	943 79 59 85
• IRUDI ILEAPAINDEGIA	943 79 80 90
• MIREIA ARRAINDEGIA	943 79 31 59
• LEINTZ-ROSI	943 79 78 63
• ERREKABARREN FRUITATEGIA	943 79 96 43



Iñaki Pierrugues Barberan

- 42 urte

- Alkategairako bigarren aldiz aurkezten da. Aurreko legealdian zinegotzia izan zen.

• Euskal Herriko egoera politiko berriak, Aretxabaletako Udalak hobeto funtziona dezan balioko du?

• Pasa den legealdian Aretxabaletako Udalean gehiegi ez duzunez parte hartu, kanpoan bizita herri honen alde lan egin daitekela uste duzu?

Bi galdera hauei Iñaki Pierruguesek ez die erantzun nahi izan.

• Zer eskeintzen diozue Aretxabaletari hurrengo lau urteetarako?

Enplegua

- Enplegua, gainontzeko beharrei gailentzen zaie. Udalek, lanik ez duten pertsonen lanerako aukerak hobetzen jardun behar dute, emakumezko, gazteri eta iraupen luzeko langabetuena esaterako.

Emakumea

- Gizon eta emakumeen arteko kontratu sozial batean oinarritutako emakume karta bat proposatzen dugu Udaletxean.

Gazteria

- Gazteriaren burujabetasuna erraztuko duten politikak bultzatu behar ditu Udalak. Enplegua eta etxebizitza dira oztupo nagusiak.

Gazteek maila politiko, sozial eta kulturean parte hartu behar dute; eragin eta erabaki gaitasuna izan behar dute, eta era berean gizarteko elementu aktiboak izan.

Etxebizitza

- Herritarrek etxebizitza izan dezaten lur politika bat garatu nahi dugu, gizakia eta natura kontuan hartzen dituen hirigintzan oinarrituta.

Politika soziala

- Gizarte zerbitzuen sistema publikoa unibertsalizatu eta egonkortuko dituen instituzioak izan behar dute Udalek.

Bizitza kalitatea eta ingurugiroa

- Lotura soziala bermatuko duen garapen ekonomiko eta urbanoaren eredia birpentsatu behar da Udaltan. Eredu honek, lotura soziala bermatu behar du eta dauden ekologi sistemekin bat etorriko da.

Kooperazioa

- Garapenerako kooperazioari aurrekontuen %1 eskaintzeko konpromezua hartzen dugu.

BEIRALAN



- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Ispiludun armairu aurrealdeak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiak

KRISTALDEGIA

Herriko plaza, 8 behea
☎ 943 79 81 78 ARETXABALETA

“ARINSA”

Aretxabaletako industrialdea S.A.

Basabe poligonoa “EO-10”

Tfnoa: 943 79 62 80

ARETXABALETA



Jaime Mugica Elorza

- 41 urte
- LH 2. ikasketak ditu eta Aretxabaleta aroztegiko nagusia da.
- Alkategairako lehen aldiz aurkezten da.
- Zinegotzi bat ateratzea gustatuko litzaioko.

• Euskal Herriko egoera politiko berriak, Aretxabaletako Udalak hobeto funtziona dezan balioko du?

Bai, zerbait nabarituko dela uste dugu. Dena dela udal hauteskundeetan taldeei baino gehiago, jendeari begiratzen zaio. Egoera berriari ondo deritzogu, baita zerrenda bakarrak ateratzeari ere. Azken finean gure ustetan, ez lirateke talde politikorik egon beharko udaltxeetan.

• Aurreko legealdian ez zenuten zinegotzirik lortu. Egoera politiko berri honekin lortzea espero duzue?

Herritarrei konfidantza eskatuko genieke zer egiteko gai garen erakusteko. Nahiz eta gero dena ondo ez egin guk ere gure aukera merezi dugu.

• Zer eskeintzen diozue Aretxabaletari hurrengo lau urteetarako?

Demokratizazioa

- Herri mailako erabakiak hartzeko erreferenduna erabiltzea proposatzen dugu, beti jendearen parte hartzea bultzatuaz.

Hirigintza

- Oinezkoentzat pasealekuak eta pasabideak hobetu beharko lirateke. Baita bizikletentzat bide egokiak ezarri ere.

Enplegua

- Udalak langabetuentzat laguntzak sortu eta horiek kontrolatu beharko litzuzke.

Etxebizitza

- Aurrekontuen portzentai bat udal ondarea sortzeko erabili beharko litzateke.
- Udalak kontrolik gabeko etxebizitzaren prezioen igoeran eskuartu beharko luke eta etxebizitza hutsei beste erabilera bat eman.

Emakumea

- Aukera berdintasuna bultzatu eta emakumearen saila sortzea nahi dugu.

Gazteria

- Gazte langabetuak prestatzeko lokalak egokitu eta ikastaroak bultzatu beharko lirateke.

Ongizatea

- Etxez-etxeko laguntzak indartu nahi ditugu.
- Pertsona nagusiek, larrialdi kasuetarako teleasistentzia izateko aukera izan beharko lukete.

Euskara

- Eskolaz gain, euskara kalean egin ahal izateko leku eta jarduerak bultzatu: talde kulturalak, kirol taldeak...

Kultura eta kirola

- Kirol instalazioak hobetu beharko lirateke.
- Hemengo kirolak, pelota esaterako eta herriko jaiak indartu nahi ditugu; herriko jende eta taldeen parte hartzea bultzatuaz.

ARGAZKI

UrKiola

Tfnoa: 943 79 39 20
ARETXABALETA

OSKAR
GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 943 79 98 74
ARETXABALETA

Izozkitekari-Gozotegia
IZOZKITEGI


Otalora, 11
Tfnoa: 943 79 93 58
ARETXABALETA



ANDRA
MARI
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 943 79 29 26



M^a Rosario Arrue Bergareche

- 63 urte
- Batxilergoa ikasi ondoren komertzio alorrean lan egiten du.
- Alkategairako lehen aldiz aurkeztzen da.
- 5 zinegotzi ateratzea espero du.

• Euskal Herriko egoera politiko berriak, Aretxabaletako Udalak hobeto funtziona dezan balioko du?

Lizarrako Itunak bazterketa egoera proposatzen du eta ez dut uste Aretxabatetako Udalak hobeto funtziona dezan balioko duenik. Udal honen jarduera egokia izan dadin, aniztasuna da beharrezkoa.

• Lehen aldia da Alderdi Popularrak Aretxabaletan zerrenda aurkeztzen duena. Zein da helburua?

Alderdi Popularrean sinesten duten atxabaltarren eskaerak entzunak izan daitezten aurkeztu gara.

• Posible ikusten duzue Aretxabaletako herriarengatik lan egitea kanpoan bizi izanda?

Bai. Izan ere, aspaldidanik ezagutu eta maite dudan herria da.

• Zer eskeintzen diozue Aretxabaletari hurrengo lau urteetarako?

Biztanleekin etenik gabeko dialogoa, herrian bizi kalitate hobea lortzeko asmoz.

Enplegua eta garapen ekonomikoa

Komertzio txiki eta industriaren bultzatzea, iraupen luzeko langabetu eta gazteentzako programa eta politika dinamikoekin.

Hirigintza

Etxebizitza sozialak eraikitzea eta alokairuko etxeen sustapena.

Ingurugiroa

Bide gorri eta ibilbideak ugaritzea eta etxeen inguruetan berdegune, komun eta umeentzako jolas lekuak jartzea.

Hirugarren adina

Nagusiek norbere etxean laguntza jaso ahal izateko politika sozialak.

Euskara

Euskararen euste eta bultzatzea.

Kultura

Jaietako kalitate kulturaren bultzatzea.

Kultur guneen sorrera herriko auzo desberdinetan.

Zerbitzu sozialak

Drogomenpekotasun eta alkoholzaletasuna prebentzeko kanpainak. Emakumearen berdintasunerako kanpainak, haurtzaindegiak...

IRIARTE

Umeen
denda



Durana, 8 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 79 10 96



FELIX
PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak - Haziak

Mitarte, 7 behea
☎ 943 77 00 33/79 42 56



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tfnoa: 943 79 01 51

Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:

Lyonel
Arquero

Dekorazioa:

Soraya
Arquero

Zilarrezko intsignia Barkerori

Joan den zapatuan UDA eta Oiartzun taldeen partiduen aurretik zilarrezko intsignia jaso zuen J. J. Barkerok Bixente Etxeandia UDAko lehendakariaren eskutik. 20 urtez azpiko munduko txapeldun izan ondoren, UDAn omenaldi hau eskaini nahi izan zion Errealeko jokalariz gazteari. Barkerok bere familiarterekin hurbildu zen Ibarra eta bertan bildutako jendearen txalo artean jaso zuen zilarrezko oroigarria.



Barkerok zilarrezko intsignia jaso zuen unean

Gorriñarekin Aizkorrira

Datorren zapatuan "Gorriñaren bide-tik" izeneko ibilbidearen IV. edizioa beteko da. Aurreko urteetan moduan, goizeko 7etan udaletxe zaharreko al-daba jo ondoren, Aizkorrirako bidea hartuko dute partehartzeileek. Batzuk korrika abiatuko dira eta beste batzuk oinez, bietara egiteko aukera baitago. Beraz, partehartzaileak animatu gura dituenak, eguerdi partera Durana kalera gerturatu daitezela.

Almeneko I. kirol jaia

Denboraldi honetako kirol ekintzei amaiera emateko, I. kirol eguna antolatu dute datorren zapatu goizerako Almenen. Jai hau nahi duten guztientzat zabaldua dago, haurrak, jokalariek, entrenatzaileak, delegatuak, gurasoak, irakasleak... Ekitaldia goizeko 10etan hasiko da, eta besteak beste, globo erraldoia, marrazki lehiaketa, gaztelu puzgarria, txalaparta, eskubaloiko jaurtiketak... izango dira. Bukatzeko, ordu batean Almeneko federatu taldeei sari banaketa egingo zaie.

Denontzako VII kirol jaia

Zapatu honetan Denontzako VII. kirol jaia izenez, Deba Garaiko gutxitu fisiko eta psikikoen kirol jaia ospatuko da. Goizeko 10etan hasita kiroletxean boccia, slalom, Goalball, badminton, saskibaloia eta aerobic kirolak izango dira. Ibarra futbol zelaian, berriz, flor ball, futbol 7 eta golf-a. Amaitzeko lunch-a izango da partehartzaile guztientzat.



Ginkana proban haur askok hartu zuen parte

Txirrindulari gazteak

Txirrindulari gazte ugari bildu zen domekan herrian ospatu zen haur txirrindulari festan. Txirrindulariak goizeko 10etan Durana kaletik atera ziren eta herriko zirkuito bati bi buelta eman ondoren, Durana kalean ginkana probak izan zituzten. Bertan sari politak banatu ziren partehartzaile guztientzat.

Kirol ekitaldi hau iaz antolatu zen lehenengo aldiz eta gaztetatik kirolarekiko afizioa eta grina sortzea du helburu. Domekan esaterako, 60 haurretik gora hartu zuten parte, horietatik asko oso gaztetxoak gainera.

IBARRA
ESTANKOA



Tabakoa eta
ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 943 79 23 77

BEGIBONDO

optika

Loramendi, 10
☎ 943 79 98 21

Okindegia - Gozategia

Aretxabaleta

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19

Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81

Aretxabaleta
Bertako okina

Futbol denboraldiari agurra

UDAKo talde gehienek bukatu dute aurtengo denboraldia. Preferentea eta lehen mailako jubenila dira denboraldia bukatu ez duten bakarrak, baina hauek ere astebukaera honetan izango dute azken partidua. Ondorengo leuroetan doakizue taldeen laburpena.

Preferentea etxean ondo

Pasa den astebukaeran etxean jokatu zuen preferenteak eta baita irabazi ere. Oiartzuni 4-1eko emaitzaz nagusitu zitzaion eta Jon Ander Larrinagak gol bi sartu zituen eta beste biak Asier Murgoitio. Denboraldia amaitzeko partidu bakarra gelditzen zaion honetan, taldea 6. postuan dago klasifikazioan.

Preferenteak denboraldi polita egin du. Etxean oso ondo aritu dira Iñaki Ceciagaren mutilak, kanpoan, ostera, ez horren ondo. Kanpoan hutsegina arren, golik gehien sartu dituen taldea izan da. Taldeko pitxitxia, berriz, Jon Ander Larrinaga izan dugu.

Jose Ramón Prieto bigarren entrenatzailearen iritziz, taldea gaztea da eta fruituak datozen urteetan ikusiko dira.

Erregionala, preferentearen harrobia

Erregionalak ondo hasi zuen denboraldia eta lehenengo postuetan ere ibili zen baina gero beheraldia izan zuen. Azkenean 18 talderen artean 11. postuan bukatzea lortu dute. Garrantzitsua maila mantentzea izan da Juan Jose Etxebarriak jakitera eman digunez. Baina ez hori bakarrik, taldeaz eta jokalariez oso balorazio baikorra egin du, "oso gustora nago jokalariekin, talde jatorra da oso. Gainera hau preferentearen harrobia da, eta aurten ere jokalariek dexentek igo du gora". Bestalde, datorren denboraldiari begira jubiletatik ere sei zazpi jokalarik igoko dute gurera".

Liga Vasca: maila mantendu

Daniel Armentiarren mutilek maila mantentzea lortu dute, kopan eliminatu egin bazituzten ere. Azken urteetan Li-



Preferenteak partidu bikaina jokatu zuen Oiartzunen aurka

ga Vascako taldea mantentzea lortu da eta, egia esan, Aretxabaleta moduko herri batentzat maila handia da hori. UDak badaki bere taldeak goian mantentzen.

Liga Vascako jokalariek, bestalde, erregional mailarako harrobi garrantzitsua izaten jarraitzen dute. Datorren urtera begira, talde honetatik hainbat jokalarik igoko du gora.

Gainontzeko taldeak

Santi Moralesek zuzentzen duen lehen mailako kadeteen taldea behera jaisteko larri ibili bada ere, azkenik, maila mantentzea lortu du. Aurtengoa kadeteetako lehen urtea izan da eta es-

perientzia hartzeko oso ondo etorri zaie jokalariei. Hauexek izan dira Santi Morales entrenatzailearen berbak: "Mutilek lehen urtea izan dute kadeteetan, eta beraz, desabantaila txiki batekin jokatzen aritu dira. Dena dela, oinarrizko esperientzia hartu dute jokalariek eta datorren urtera begira ondo ibiliko dira".

Ohorezko liga infantilak, ostera, zorte txarragoa izan du eta behera jaitsiko da aurten. Azkenik, lehen mailako jubenilek datorren asteburuan bukatuko dute liga. Azken partidu hau erabakiorra izango da, oraindik behera jaisteko arriskua daukate eta. Ia bada maila mantentzea lortzen duten.



Erregionalak maila mantentzea lortu du

1999/2000 ikasturtea

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK (2 ikasturte)

- ▲ Proiektu Mekanikoen Garapena
- ▲ Mekanizazio Bidezko Produkzioa
- ▲ Industri Ekipoen Mantenimendua

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (2 ikasturte)

- ▲ Mekanizazioa



Makina Erremintaren Institutua
 San Roke auzoa, 1
 20870 - Elgoibar
 Tel. 943 74 41 32
 E-posta: amaia@fmh.es

Bilera informatiboa: maiatzak 28. arratsaldeko 17:00etan

Aurreinskripzio epea: ekainaren 1etik 9ra, biak barne.



horma armairuak



tolesgarriak

**horma armairu
irristagarriak**




AZKARATE AROSZTEGIA

ARETXABALETA 943 77 01 24
 BERGARA 943 76 47 19

**Ateak, leihoak,
horma armairuak, tarimak
eta parketak**

ARDATZA
Brikolaketa

Masterreka, 4 behe. Tf.: 943 76 18 93 • BERGARA



1938an jaiotako kintoak

daberri-uda garaia heltzearekin batera, astebukaera guztietan izaten dira kinto afariak. Argazki hau ere, kinto bazkaria egiteko elkartutako kuadrilak atera zuen 1.975eko maiatzaren 4an. 1938 urtean jaiotako kintoak ditugu eta bazkaria Anduaga tabernan izan zuten. Batzuk falta arren eta asko jubilatuta egon arren, ziur gaude orduko umorea eta martxa ez zutela galduko.

Goian, ezkerretik hasita: **Pako Oskoz, Alejandro Urzelay, Felipe Arkauz, Jabier Bengoa, Jose Jabier Urzelay, Santi Arkauz, Emiliano Altube, Jabier Zubillaga eta Karmelo Olabe.**

Behean, ezkerretik hasita: **Andres Bengoa, Pedro Mendieta, German Gonzalez, Juan M^a Gastiasoro, Alberto Uribetxebarria, Tomas Iturricastillo, Juanito Larrinaga eta Eusebio Gastañaga.**

Argazkia eta informazioa: *Pako Oskoz*

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



URKULU, S.L.

Mitarte, 23 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 79 96 66
Fax: 943 77 10 33

Frutan eta txarkuterian
espezialitatea

Angelines
AUTOZERBITZUA

Mitarte, 16 • 943 79 61 42

Etxabe
harategia

Durana 4
☎ 943 79 16 61

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA
Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tfnoa: 943 77 13 57

LANA

◆ **Loramendi Euskara Elkartek dinamizatzaile bat** behar du. Interesatuok deitu 943 77 09 70 telefonora edo eta bidali curriculum-a Aretxabaletako udaletxe zaharrera, Durana, 11 20.550 Aretxabaleta.

◆ **Emakume bat** behar da haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuok 943 79 04 45 telefono zenbakira deitu.

◆ **Zerbitzari euskalduna** behar da. Tfnoa: 945 44 50 86

◆ **Neska prest**, etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Tfnoa: 943 77 17 42.

◆ 25 urtetik gorako **neska behar** dut etxeko lanak egin eta bi ume zaintzeko. Arratsaldeko 8etatik aurrera deitu ondorengo telefono zenbakira 943 79 37 03.


◆ **Etxeko lanak egiteko pertsona** behar da. Interesatuak 945 44 50 94 telefono zenbakira deitu.

◆ **Langaiko lan eskaintza**

Elektrizista. Deba Garaia. Erref. 19665/6

Dendako arduraduna. Gasteiz. Erref. 19684/7

Giza baliabideen 2 arduradun. Durango. Erref. 19604/2



Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 943 79 86 21 telefonora edo 943 77 18 54 erantzungailura. Dohainik da.

2 CNC tornulari. Urretxu. Erref. 18886/3

◆ **Lan eskeintza publikoak.**

Andosillako Udala. Udaltzaina. Titulazioa: OHO edo balio-kidea, BTP eta A gidatzeko baimenak.

Aurkezteko epea: 99/6/2
Oinarriak: NAO 99/5/3

DENETIK

◆ Miele lehorgailu bat salgai. Egoera oso onean. Tfnoa: 943 79 85 83.

◆ Gela bat hartu nahi dut alokairuan Aretxabaletan. Tfnoa: 670 05 47 63.

◆ Laredon 6 pertsonentzako apartamentua dago alokagai. Igogailua du. Uztailean, hama-bostaldia 80.000 pta. Tfnoa: 943 76 44 34.

◆ 16 valvulako opel vectra 2.0i GT kotxea saldu nahi da. Matrikula SS-AN (1993 urtekoa). Tfnoa: 943 79 63 67.

ETXEBIZITZA

◆ Lokal komertziala salgai edo alokagai dago Aretxabaletan, toki zentriko eta eguzkitsuan. Orain artean ileapaindegi eta edertze areto moduan funtzionatu du. Tfnoa: 943 71 12 70.

◆ Baserri zahar bat erosiko nuke berrizteko asmoz Deba Baitaran. Tfnoa: 649 67 19 14.

◆ 57 m²ko garajea salgai Errekabarren kalean. Tfnoa: 943 79 74 73.

LEHIAKETAK

◆ **1999 Andramaixetako iragarlea aukeratzeko kartel lehiaketa.** Aretxabaletako Andramaixetako jaiak iragartzeko erabiliko den kartela aukeratzeko kultura batzordeak kartel lehiaketa antolatu du. Edozein atxabaltarrek parte har dezake eta teknika libre da. Kartelaren neurria 50x70cm.koa izango da edo disketean ekarriz gero DIN-A 3an aurkez daiteke. Kartelak derri gorrez ondoko testua izan behar du: **Andramaixak 99 Abuztuak 14,15, 16 eta 17 Aretxabaleta.** Irabazleak 35.000 pta.ko saria jasoko du. Kartelak, egilearen izena lemadun sobre itxian daramala, uztailaren 5a baino lehen Kultur etxera edo Udaletxera bidali. Epaimahaiaren erabakia uztailaren 14an jakinaraziko da.



• BILTEGI HOZKAILUA
• HARAGI PRODUKTOAK
• INDIOILARRA ZATITUTA
• UNTXIAK
• TXERRIKIAK
• IZOZTUAK
• BASERRIKO OILASKOAK

Basabe Poligonoa A-15

☎ 943 79 34 28 • Faxe: 943 79 34 28

CONSUM EROSKI

Orain arrandegi eta okindegiak, zatoz!

Mitarte kalea z/g 943 79 92 11
ARETXABALETA

Zapatuan kirola nagusi



M. J. Arzak

Pasatutako kontuez berbetan hasi behar dut gaur ere. Euskararen eguna apur bat urruti gelditzen bada ere, badaukagu egun horretako zer kontatu. Esku pilotan irabazleak **Gorka Madina-beitia** eta **Asier Errasti** izan ziren, bigarren **Egoitz Garziaetxabe** eta **Aitor Ziardegi**. Gorka Madina-beitia pala txapelketan ere finalera heldu zen, nahiz eta hemen bigarren postua eskuratu.

Egun berean, karta jokoan **Oier Sarasua** eta **Andoni Arana** izan ziren etxera txapela eraman zutenak. Musean trebea da bikotea baina txapelketa eurak antolatu zutela jakin ondoren... edozer gauza pentsatu dezake batek.

Joko berri bat ere egon zen euskararen egunean, kaja jokoak. Bertan **Eneka Guenetxea** aritu zen finen. Plazako arbolak baino gorago heltzeko

gutxi falta izan zitzaion.

Euskararen egunean ez zen txirrindulari probarik egon baina bai osterara joan zen domekan. Haur txirrindulari festan, herriko txirrindulari gazteak, zein baino zein trebeago aritu ziren ginkana proban. Partehartzaile guztiek jaso zuten sari bana eta ah ze nolako sariak gainera. Dena dela, adinen arabera hauexek izan ziren proba ondoen egitea lortu zutenak: 13-14 urte bitartekoan, **Nakai Kadaviz**, **Mikel Arana** eta **Lartaun Iturbe**. 10-12 urte artekoan, **Josu Alvarez**, **Ion Martin** eta **Ibai Mugika**. 9-7 urtekoan **Gilen Mar**, **Ganitz Zubimendi** eta **Unai Gardoki** eta denetatik gaztetxoenean, **Lander Mugika**, **Elena Fernández** eta **Lore Mar**.

Beste bi kontu ondoren, Aretxagazetan langile berria daukagu lanean, **Monika Belastegi** bergararra. Monikak, Mirari gure lankidea ordezkatzuko du bere amatasun bajaran. Udaletxeko kultura sailean ere **Amaia Berezibar** hasi da lanean. San Juanak eta Andramaixak antolatzen burubelarri dabilta momentu honetan.

Bukatzeko, datorren zapatua kirol ekitaldiez beteta datorkigu. Hiru gunetan izango da kirola nagusi. Almeneko I. jaia, Gorriñaren bidetik izeneko proba eta gutxitu fisiko eta psikikoentzat lbarran ospatuko den "Denontzako VII. kirol jaia". Beraz, aspertzeko arrazoirik ez du inork izango zapatu honetan.

Liburutegiko txokoa



Ni eta nire metroa

Testua, Amado Gómez Ugarte
Marrazkiak, Jokin Mitxelena
Itzulpena, Joxan Ormazabal
Elkarlanean, 1998 (Mirus; 34)

"Ni eta nire kontuak" liburuan agertu zen lehenengo aldiz metroarekin gauza guztiak neurtzen ibiltzea gustatzen zaion mutiko xelebre hau. Oraingoan etxeko teilatura igoko da, dortoka bat erosiko du eta udalekuetara joan beharko du besteak beste, beti ere umore bereziz protagonistak berak eginitako kontakizun honetan.

Jokin Mitxelenaren marrazkiak ere oso aproposak dira, istoriaren umorearekin bat datozelako.

8 urtetik aurrera irakurtzeko moduko liburua duzue honako hau.

Joseba Lopez de Armentia

MAIATZA

28

egukotxa

KONTZERTUA

Tapia eta Leturiak kontzertua eskainiko dute ilunkarako 8,30etan udaletxe zaharrean.

29

zapatua

ABESBATZEN TOPAKETA ARRASATEN

Eskola arteko abesbatzen topaketa egingo da Arrasateko Amaia antzokian, San Frantzisko Xabier ikastolak antolatuta. Goiz eta arratsalde izango dira saioak.

GAZTETXEAN ASANBLADA

Arratsaldeko 6etan asanblada izango da gaztetxean. Herritarren partehartzea eskatzen da gaztetxea leku irekia eta zabala bilakatzearen aldeko proiektua aurrera eramateko.

hainbat kirol ekitaldi zaturako

GORRIÑAREN BIDETIK

Zapatuan Gorriñaren bidetik izeneko kirol proba egingo da. Goizeko 7etan irtengo dira partehartzaileak Durana kaletik, udaletxe zaharreko aldaba jo ondoren. Ahal duenak korrika eta nahi duenak oinez egiteko aukera ere egongo da, beraz, animatu zaitezte.



ALMENEKO I. KIROL JAIA

Almenen ere izango da zer ikusirik zapatu goizerako. Denboraldi honetako kirol ekintzei amaiera emateko, I. kirol jaia antolatu dute. Goizeko 10etatik aurrera ekintza ugari izango dira bertan, hala nola, globo erraldoia, grafitiak, esku-baloi jaurtiketa, esku pilota txapelketa, zezen mekanikoa, gaztelu puzgarria... Ekitaldiaren amaieran, ordu batean, Almeneko talde federatuentzako sari banaketa egongo da.

DENONTZAKO VII. KIROL JAIA

Deba Garaiko gutxitu fisiko eta psikikoen kirol zita garrantzitsua izango dute zapatuan Aretxabaletan. Jarduerak goizeko 10etan hasiko dira kiroletxean, boccia, slalom, Goal-ball, badmington, saskibaloia eta aerobic kirolekin. Ibarra futbol zelaian, berriz, flor ball, futbol 7 eta golf-a. Amaitzeko lunch-a izango da partehartzaile guztientzat.

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 943 79 01 28

Maritxu Mertzeria


Araba Ibilbidea, 24
Tfnoa: 943 79 23 53
ARETXABALETA

Mobiliario ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 943 79 08 07
ARETXABALETA

**T
X
i
L
A
R
R
A**



ELIKADURA BEREZIA

Durana, 35
Tfnoa: 943 79 10 15

Loramendi, 9
Tfnoa: 943 79 44 28
ARETXABALETA

Aldiabi

943 71 20 02

*Bereziki: Harategia
Urdaitegia
Fruitategia*

IMANOL JANARI DENDA

Gorbea kalea ☐ 943 79 05 83

ITURGINTZA

J.J

Jose Jabier Irure

URA, GASA ETA
KALEFAZIOA

Tfnoa: 943 79 07 34
943 79 31 87

EKAINAK

3

eguna

KEPA URRA EUSKAL
HERRIRATZEAREN
ALDEKO EKINTZA

Kepa Urrea preso atxabaltarraren Euskal Herriratzea eskatu asmoz, "Euskal presoak Euskal Herrira" Aretxabaletako plataformak datoren ekainaren 3rako Bilbora joateko deialdia egin du. Bertan, "Juez de vigilancia penitenciaria"ren egoitza aurrean izango da protestaldia. Irteera goizeko 9etan izango litzateke autobus geltokitik. Joan nahi izanez gero, izen ematea datorren astebukaeratik aurrera Gurea, Urbaltz eta Arlutz tabernetan egin daiteke.

UDAKO EUSKARA
IKASTAROAK ETA
BARNETEGIAK

Udarako euskalduntze, alfabetatze, EGA eta ikastaro bereziak antolatu ditu Udal euskaltegiak. 16 urtetik gorakoentzat zuzenduta daude eta matrikulatze epea ekainaren 8tik 19ra bitartekoa da.

Barnetegia, berriz, uztailearen 1etik 15era izango da Zerainen. Arlo honetan informazio gehiago jaso nahi izanez gero udal euskaltegira dei daiteke, 943 79 21 68.

GLOTODIDAKTIKA
IKASTAROA

AEEK glotodidaktika ikastaroa antolatu du uztailearako. Izena ematea 943 77 03 69an, ekainaren 4a baino lehen egin daiteke. Saioak uztailearen lehenengo astean hasiko dira.

BEHARREZKO
TELEFONOAKAretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkartea	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 79 64 61
• Kultur-Etxea	943 79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Murruxiko M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 71 24 06
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
• Saretxo	943 71 26 56
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoa	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

Larrialdiak

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdiak	943 46 11 11
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 02 02
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15

Elizetako erreportajeak eta alkategaiak




Atxabalta telebistako langileek, azkenengo bi asteetan ez dute behar bezalako programaziorik ematerik izan, arazo teknikoak direla eta. Hori dela eta, orain dela hamabost egun iragarri genizuen auzoetako elizen inguruko erreportajeak ostiral honetan eta hurrengoan emango

dituzte.

Lehenengoan Izurietako eliza izango da ikusgai eta bigarrenan Koruetako Santiago eliza, biak ere orain denbora gutxi konpondu eta inauguratutakoak.

Bestalde, astearteko emisioetan, alkatezarako hautagaiak elkarrizketatzeko asmoa dute, hauteskunde eguna heldu bitartean.

	MARTIZENA	EGUAKOTXA
20:00	ALBISTEAK Atxabaltako albisteak Gai orokorra Eguraldia	ALBISTEAK Atxabaltako albisteak Gai orokorra Eguraldia
20:20	KIROLAK	AGENDA
20:30		ATXABALTA EZAGUTZEN



Mirian Mantecak orain sei urte ekin zion masajeak emateari. Horretarako hainbat ikastaro egin behar izan zituen, eta gaur egun ere horretan dihardu. Bere adierazpenetan, jende gehiena, stressa eta bizkarreko arazoengandik joaten da masailariarengana.

• Noiztik eta nola masajeak ematen?

Masaje ikastaro batzuk egin ostean, orain sei urte hasi nintzen lanean. Aurretik praktikak egin nituen pare bat urtean zehar.

• Masajeak mingarria izan behar du eraginkorra izateko?

“Masajeak eraginkorra izateko ez du mingarria izan beharrik”

Ez du zergatik minik egin behar, masajea erlajatzeko izan daiteke, terapeutikoa edo deportiboa...

• Zergatik etortzen da jendea masajistarengana?

Gehienbat stressa eta bizkar arazoengatik.

• Noiztik zaude merkatal zentruan?

Maiatzaren 4tik, aurretik etxean ematen nituen.

• Zer erabiltzen da masajeak emateko?

Normalean almendrazko olioia.

• Zer egiten duzu denbora librean?

Osteopatia ikasi adibidez.

• Telebista beharrezkoa da etxean?

Behar-beharrezkoa ez baina ondo etortzen da. Bere erabilera kontrolatu beharra dago.

• Udal hauteskunderetan bozkatuko duzu?

Bai.

• Zein da eskolan gehien eta gutxien gustatzen zitzaizun gaia?

Gehien gimnasia eta gutxien historia.

• Gaur egungo gizarteari zer kenduko zenioke?

Bizioak.

• Erretzailea zara?

Bai eta dexente erretzen dut gainera.

• Seme-alabarik izatekotan zentratu bat?

Bat.

• Beldurra zeri?

Bakardadeari.

• Pelikula bat?

Leaving Las Vegas. Izugarri hunkitu ninduen eta orain liburua irakurtzen ari naiz.

• Nola apainduta daukazu zure logela?

Hormak urdinak dira eta tapiz batekin apaindurik daukat logela.

• Koloniarik bai?

Bai.

• Zapata takoidunak ala takoi-gabeak?

Takoigabeak eta ahal bada zapatilak.

• Platerrik gustokoena?

Txipiroiak bere saltsan.

• Jatuna zara?

Bai.

• Amestutako lanbidea?

Medikua.

• Eguzkia hartzea gogoko duzu?

Bai, baina etzanda ez dut asko irauten.

• Zein ezaguni emango zenioke masajea?

Sean Connery aktoreari.

KOMIKIA

BALANTZAK (Hikaz berbetan)



Mikel Arroiabe

TABERNA eta JATETXEEN GIDA


Zaraia taberna

**MANTEKA
ANAIK**

*Goizeko 5,30etatik
zure zerbitzura*

Araba Ibilbidea, 20 • 943 79 88 95

Haizea taberna



Mitarte, z/g • ARETXABALETA
Tfnoa: 943 79 85 57

Artano taberna

**Herriko
plazan
ARTANO**

Girorik onena

Herriko plaza, 3 • 943 79 62 75

Gurea taberna

**Jatetxea eta
taberna**

GUREA

Eguneko menuak

Durana kalea • 943 79 20 64

Basabe jatetxea

*Menu eta
afariak*
**BASABE
JATETXEA**

Basabe poligonoa • 943 79 91 84

Arlutz taberna



Gustoko musika

Mitarte, 16 • ARETXABALETA
Tfnoa: 943 79 32 34

Ezkutu taberna



Mitarte, 9 • 943 79 92 01

Goyaran erretegia



GOYARAN ERRETEGIA
• Pannila espezialitatea

Solohaundi-8 ARETXABALETA
943 79 68 57

Mendiola erretegia



◆ *Bazkari
eta afariak*

*Astelehenetan
itxita*

Mendiola auzoa • Eskoriatza

Bazter alde jatetxea



**Sasoiko
jakiak
giro
onenean**

Galartza auzoa
943 79 24 58
ARETXABALETA


Dorleta taberna

Dorleta

Bezeroen zerbitzura

Loramendi 8 • ARETXABALETA
943 79 94 15

Mitartegarai



Arientza auzoa
Aretxabaleta
Tfnoa: 943 79 17 51



Josu harategia

- Urdaitegia-gozotegia
- Kroasantegia
- Gertatutako janariak

Josu harategia

Mitarte, 1 • ARETXABALETA
Tfnoa: 943 77 03 08

Taberna Berri



*Taberna Berri
jaketxea*
Durana, 26 • ARETXABALETA
943 79 20 67

Urbaltz taberna



Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABALETA



VITO CDI



Galloper Santamo



Mitsubishi Montero Sport



Nissan Cabstar E

Aldibin *berri* ugari dituzu



S/V40 TDI



Hyundai Sonata *berria*



Aldibi autoak, S.A.



MERCEDES
Izar autoak, S. L.

VOLVO

Auto Suecia



GALLOPER

Almovil, S.L.



HYUNDAI

Musakola autoak, S.L.



Aldikar autoak, S.L.